



EBAZPENA, 2020ko apirilak 20, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, GIPUZKOAKO ESKUBALOIA FEDERAZIO(A)REN ondorengo araudiak onartu eta EAEko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzen dituen:

- **Joko Lehiaketa-araudia**
- **Arbitroen araudia**

2020ko otsailak 24 Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzan sarrera izan du Gipuzkoa Foru Aldundiaren 2020ko otsailak 21(e)ko 40- 064 ebazpenak. Ebazpen horrek, Kirol Erakundearen Erregistroan 1985ko ekainak 04(e)an 15 zenbakiarekin inskribatuta dagoen GIPUZKOAKO ESKUBALOIA FEDERAZIOAREN goian aipatutako araudiak onartzen ditu.

Ekainaren 11ko 14/1998 Euskadiko Kirol Legearen 41. artikulua, estatutu eta araudien aldaketa eta onarpena Kirol Erakundearen Erregistroan jaso beharreko egintzak bezala jasotzen ditu.

Gipuzkoa Foru Aldundiak igorritako dokumentazioa ikusita, eta indarrean dagoen legediak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen direla kontuan izanik,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Gipuzkoa FORU ALDUNDIAREN 2020ko otsailak 21(e)ko 40-064 Ebazpenaren bidez onartutako **GIPUZKOAKO ESKUBALOIA FEDERAZIOAREN** araudiak Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzea:

- **Joko Lehiaketa-araudia.**
- **Arbitroen araudia.**

Bigarrena.- Legez ezarritako epean jakinaraztea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea ez du amaitzen eta, bere aurka, pertsona interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den hurrengo egunetik aurrera.

RESOLUCIÓN de 20 de abril de 2020, del Director de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco por la que se aprueba e inscribe en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco la modificación de los siguientes reglamentos de la FEDERACION GUIPUZCOANA DE BALONMANO:

- **Reglamento de Competición de juego**
- **Reglamento de Árbitros**

Con fecha 24 de febrero de 2020 ha tenido entrada en la Dirección de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco la Resolución 40- 064 de 21 de febrero de 2020 de la Diputación Foral de Gipuzkoa por la que se aprueban los reglamentos arriba mencionados de la FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE BALONMANO, inscrita en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco el 04 de junio de 1985 con el número 15.

El artículo 41 de la Ley 14/1998, de once de junio, del Deporte de Euskadi, determina que serán objeto de inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco, entre otros, la aprobación y modificación de estatutos y reglamentos.

A la vista de la documentación remitida por la Diputación Foral de Gipuzkoa y dado se cumplen todos los requisitos exigidos por la normativa vigente,

RESUELVO

Primero.- Inscribir los reglamentos de federaciones territoriales en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco de la **FEDERACION GUIPUZCOANA DE BALONMANO**, aprobados por la Resolución 40-064 de 21 de febrero de 2020 de la Diputación Foral de Gipuzkoa:

- **Reglamento de Competición de juego.**
- **Reglamento de Árbitros.**

Segundo.- Notifíquese en el plazo legal establecido.

Tercero.- Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, las personas interesadas podrán interponer Recurso de Alzada ante el Consejero de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Jon Redondo Lertxundi
JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARIA



Nahi izanez gero, J0D0Z-T228J-D87Y bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T228J-D87Y en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

AURKIBIDEA

ATARIKO TITULUA: JARDUN EREMUA

LEHENENGO TITULUA: LEGE ESPARRUA

**BIGARREN TITULUA: EPAILEAK, OHAR-HARTZAILEAK
ETA KRONOMETRATZAILEAK**

**HIRUGARREN TITULUA: LEHIAKETETAKO PARTE-
HARTZEA ETA JARDUERAK**

LAUGARREN TITULUA: EPAILEEN FORMAZIO SISTEMA

BOSGARREN TITULUA: DIZIPLINA ARAUBIDEA

**SEIGARREN TITULUA: ARAUBIDE EKONOMIKO
ADMINISTRATIBOA**

ATARIKO TITULUA: JARDUN EREMUAK

1. ARTIKULUA

Epailen Batzorde Teknikoaren Araudiak (EBT) arau batzuk ezartzen ditu, Gipuzkoako Eskubaloï Federazioaren (aurrerantzean, GEF) egiturako arbitro ohar-hartzaile, kronometratzaile, behatzaile eta Epailen Lurralde Eskolako kide diren pertsonen jarduna arautze aldera, betiere GEFren Estatutuak, Lehiaketan Araudi Orokorrak eta hark onarturiko gainerako araudien arabera

LEHENENGO TITULUA: LEGE ESPARRUA.

2. ARTIKULUA.

GEFren bamean Epailen Batzorde Tekniko bat eratutzen da- Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak eta Euskadiko Kirol Federazioen urtarilaren 31ko 16/2006 Errege Dekretuak ezarritakoaren eta hura garatzeko gainerako xedapenen arabera-, eta batzordearen lehendakaria GEFren lehendakariak izendatuko du.

3. ARTIKULUA.

Gipuzkoako Epailen Batzorde Teknikoak eginkizun hauek izango ditu:

- Epailak sailkatu kategoria desberdinetan
- EBTren bidez emango direnikastaroen ikasketa planak gauzatu
- Joko arauen interpretazioa bateratzeko, arauak ezartzea
- Joko arauak ezagutzera emateko eta hedatzeko sistemak, prozedurak eta bitartekoak antolatu.
- Lurralde epaile eta autonomia epaile izateko hautagaiak proposatu.
- Administrazio arauak onartu eta epailetza arautu.
- Euskal federazioarekin bateraformazio mailak koordinatu.
- Epailak, ohar-hartzaileak eta kronometratzaileak izendatu lurralde eta autonomia mailakolehiaketetan eta Euskadiko Eskubaloï Federazioak baimenduriko lehiaketetan.

BIGARREN TITULUA: EPAILEAK, OHAR-HARTZAILEAK ETA KRONOMETRATZAILEAK

1.KAPITULUA: EPAILE OHAR-HARTZAILE ETA KRONOMETRATZAILE IZAERA ETA HAIEN SAILKAPENA

4. ARTIKULUA

Epaile, ohar-hartzaile eta kronometrátzail; izango dute denboraldi horretan GEFk izapidetutake lizentzia egokia daukaten pertsonak.

5. ARTIKULUA.

Jardunean dauden epaile, ohar-hartzaile eta kronometratzaile bezala Epaileen Estamentuan sartzeko, baldintza hauek bete behar dira:

1. Europar Batasuneko kide diren estaturen bateko eduki, edo EBn estatuak emandako eta Espainiako estatuak onetsitako nazioarteko itunen aplikazioa tarteko, langileen zirkulazio aplikagarri zaion estaturen bateko naziotasuna izatea.
2. Eskubide zibil guztien jabe izatea, inolako debekurik gabe.
3. Gutxienez 16 urte izatea, GEFren epaile lanetan aritzeko.
4. EBTk ezartzen dituen araudien gaineko jakintza probak eta proba fisikoak gainditzea, adinaren eta egiaztatu beharreko trebakuntzaren arabera.

6. ARTIKULUA

Epaile, ohar-hartzaile eta kronometratzaile guztiek urtero eskatu beharko diote lizentzia berritzea GEFri. Lizentzia berritu ezean, kirol izaera galduko dute.

7. ARTIKULUA

Epaileak lizentzia izenpetzen badu, bere ardura izango da han agertzen diren datuak egiazkoak izatea.

8. ARTIKULUA

GEFk ahalmena du epaile, ohar-hartzaile kronometratzaileek kide izateko edo lizentzia berritzeko egindako eskaerak onartzeko edo ez onartzeko, betiere tartean federazioak jarritako zigorrik ez badago, araudi honetan jasotakoaren arabera.

9. ARTIKULUA

EBTk urtero sailkatuko ditu epaileak teknikoki, kontuan harturik lurralde lehiaketetan lorturiko merituak eta aurreko denboraldian egindako probak. Sailkapen hori kontuan hartuko da lehiaketa ofizialetarako epaile taldeak izendatzeko.

10. ARTIKULUA

Jardunean dauden epaileek eginkizun teknikoak bete ahal izango dituzte beren Lurraldeko Batzorde Teknikoan, lehendakari hartarako izendatzen baditu. Era berean klubeko zuzendaritza batzordeko kide izan ahalko dira. Jardunean dauden eskubaloiz jokalariei eta entrenatzaileak epaile lanetan ari ahalko dira GKPren barnean, GEFk aurrez baimena emanda.

II KAPITULUA : EPAILEEN KATEGORIAK

11. ARTIKULUA

Jardunean dauden epaileak, ohar-hartzaileak eta kronometratzaileak kategoriatan hauek sailkatzen dira:

LAGUNTZAILEAK

Ohar-hartzailea eta kronometratzailea

EPAILEAK

- GKP epaileak
- Lurralde epaileak
- Autonomi epaileak
- Nazio epaileak

HIRUGARREN TITULUA: LEHIAKETETAKO PARTE-HARTZEA ETA JARDUERAK

12. ARTIKULUA

Epaile Estamentuko kideek behatu eta zorrotz bete beharko dute araudi hauek xedatutakoa: Partiden eta Lehiaketen Araudia, Disziplina Araudia, Lehiaketen Oinarriak, Joko Arau Ofizialak eta GEFk sortu eta indarrean dauden gainerako araudiak.

13. ARTIKULUA

Epaileak, ohar-hartzaileak eta kronometratzaileak bete beharrekoak:

- GEFko EBTren eta bere batzordeen kirol disziplina.
- Gipuzkoako selekzioaren partida ofizialetan lagunartekoetan eta entrenamenduetan parte hartu, deituak direnean.

- Bilera tekniko, ikastaro eta probetan parte hartu, deituak direnean.
- Izendatuak izan diren partidetara garaiz azaldu.
- Bi taldeen kamisetan antzekoak badira, kanpoko taldeari beste kolore bateko kamiseta janzteko agindu.
- Jokalariek eta laguntzaileek beren eginkizunetan portaera egokia izan dezaten zaindu, eta hutsegiteren bat egiten dutenean, dagokion bezala zigortu.
- Jokalarien oinetakoak eta bestelako elementuak aztertu partida hasi aurretik gainerako jokalarientzat arriskutsua edo kaltegarria izan daitekeen guztia debekatzeko aldera (joko araudiaren 4.9 artikulua)
- Etxeko taldearen zuzendariak batzordeko ordezkariari eskatu ikusleei kargu hartzeko, baldin eta haien jarrerak epailearen jarduna edo partida bera egoki jokatzeko oztopatzen edo galarazten badu.
- Anormaltasunik, gorabeherarik, gabeziarik edo antzekorik gertatzen bada, txosten idatzi bat bidali Lehiaketa Batzordera partida, ofiziala edo lagunartekoa, jokatu eta 72 orduko epean.
- Idatziz jakinarazi aktan jasotzen diren oharak, "IKUS ERANSKINA" jarrita.
- Partidetan, epaileen jantzia jantzita jardun.
- Idatziz jakinarazi Lehiaketa Batzordeari eta EBTri jokalekuan edo inguruan edozein gabezia ikusten badu.

Eginkizun horiek betetzen ez badira, GEFn eskua duten organoek diziplina zigorrak edo zigor teknikoak ezar ditzakete.

14. ARTIKULUA

Epailearen txostena epaileak berak idatziko du, eta berak entregatu edo posta arruntaren bidez bidali beharko du Gipuzkoako Eskubaloien Federaziora, helbide honetara: Anoeta pasealekua 5, 31. bulegoa. PK: 20014, Gipuzkoa; edo bestela GEFk adieraztenduen helbide elektronikora bidali behar da.

15. ARTIKULUA

Epaileak sailkatu diren kategorian ariko dira, eta EBTKk egoki irizten dionean, sailkaturiko kategorian handiagotatu ari ahal izango dira, beti ere kategorian bereko edo handiagokorik libre ez badaude.

Partidoek arbitraia bikoitza izan beharko dute beti ere arbitroen plantillak aukera ematen duenean.

16. ARTIKULUA

Epaileek txartel horiak, gorriak eta urdinak erabili beharko dituzte partidetan, araudiaren arabera ezartzen diren zigorren berri emateko jokalariei eta ikusleei.

LAUGARREN TITULUA : EPAILEEN FORMAZIO SISTEMA

17. ARTIKULUA

EBTren eginkizuna izango da izangaiak eta behatzaileak prestatzeko eta epaileak eta behartzaileak trebatzeko ikastaroak ematea, eta joko arauak hedatzea. Horretarako, zuzendari bat eta irakasle taldea izango ditu, EBTk ezartzen dituen arauen arabera

18. ARTIKULUA

Gaitasun azterketa urtero egingo da, eta urtean zehar baliteke beste azterketa bat egitea.

19. ARTIKULUA

EBTk egingo eta zehaztuko ditu berari dagozkion epaileen ikastaroetako programak eta ordutegiak, ikasketa planetan ezarritakoaren arabera. Berdin jokatu da ohar-hartzaile eta kronometratzaileen ikastaroetan.

20. ARTIKULUA

Ohar-hartzaile eta kronometratzaileen ikastaroak egingo dira Lurralde Federazioak egoki ikusten duen datetan. Nolanahi ere, egitasmoa (iraupena, ordutegiak, irakasleak eta abar) GEFren lehendakariari eta zuzendaritza teknikoari jakinarazi beharko zaio.

EBTk gutxienez 10 egun lehenago jakinaraziko die lizentzia duten epaile, ohar-hartzaile eta kronometratzaileei.

21. ARTIKULUA

Interesa daukaten 16 urte beteta dituzten pertsona guztiek eman dezakete izena ohar-hartzaile eta kronometratzaileen ikastaroetan.

22. ARTIKULUA

GKP epaile, lurraldeko epaile eta ohar-hartzaile/kronometratzaile titulua eskuratzeko ikastaroko ikasgai guztiak gainditu beharko dira, egiaztatu behar den gaitasunaren arabera.

23. ARTIKULUA

Autonomia mailako epaile titulua eskuratzeko, GEFren EBTk Euskadiko Eskubaloi Federazioaren EBTri ikastaroa egiteko gai diren epaileak jakinaraziko eta proposatuko dizkio.

BOSGARREN TITULUA : DIZIPLINA ARAUBIDEA

24. ARTIKULUA

Epaile Estamentuko epaileak eta gainerako kideak GEFk, ezarritako Diziiplina Araudiari atxikirik gelditzen dira.

Araudi honetan jasota ez dauden gaiak ebazteko, hauek erabiliko dira: Partiden

eta Lehiaketen Araudia, Euskadiko Eskubaloi Federazioaren Diziiplina Araudia eta Espainiako Eskubaloi Federazioaren Joko Arauak.

Partiden eta Lehiaketen Araudian eta Euskadiko Eskubaloi Federazioaren Diziiplina Araudian jasotzen diren diru zigorrak, araudi honetan jaso gabe daudenak, murriztu egingo dira, araudi honetan antzeko kasuetarako ezartzen diren baremoen arabera.

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren Kirol Disziplina Batzordea arduratuko da Partiden eta lehiaketen Araudian eta Euskadiko Eskubaloi Federazioaren Disziplina Araudian ezartzen diren zigorrak zorrotz betetzeaz.

SEIGARREN TITULUA: ARAUBIDE EKONOMIKO ADMINISTRATIBOA

25. ARTIKULUA

EBTren jarduerak aurrera eramateko, aurrekontu bat egingo da urtero. Aurrekontu hori GEFren lehendakariari aurkeztuko zaio, GEFren aurrekontuan sar dezan.